

2023ko A25eko komunikatua

Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko beharrezkoa da berdintasunean hezte

InteReden, deia egiten dugu azaro honetan, **indarkeria matxistak prebenitzean eta ekiditean hezkuntzak daukan balioa** nabarmentzeko asmoz. Bizitza osorako prozesua dela ahaztu gabe, berdintasunean eta berdintasunerako hezi beharra dago, ikasbide kolektiboak sortzeko, neskatilak zein emakumeak ahalduzko eta, bizi ditugun krisien aurrean, gizarte-aldaketarako aukera liluragarriak eratzeko.

30 urtetik gorako esperientzia daukagu hezkuntza-prozesuetan, metodologia sozioafektiboetan berritzen dugu eta beste kultura, jakintza-modu eta gizarte-mugimendu batzuen ikasbideak hartzen ditugu kontuan (esate baterako, feminismo erkideak, dekolonialak, arrazakeriaren aurkakoak...). Hori guztia dela eta, defendatu egiten dugu **hezkidetzaren dela indarkeria matxistak prebenitzeko eta desagerrarazteko tresna onena**.

Hezkidetzaren aldeko apustua egiten dugu, **mundua eraldatzeko** eta gaur egungo gizarte patriarkal, kapitalista eta arrazistak bereizkeriarik gabeko gizarte bihurtzeko. Indarkeria matxistaz betetako zenbakirik eta bizi-historiarik ez daukan mundua nahi dugu, bidezko eta berdintasunezko mundua, alegia. Bertan, gainera, emakumeek jasaten dituzten bereizkeriak zein desberdintasunak konpondu eta desagerrarazi behar dira, honako hauexek kontuan hartuta: ezkutuen daudenak, euren arteko lotunea daukatenak (generoa, arraza, estatusa eta bizilekua, orientazio sexuala eta genero-nortasuna, besteak beste) eta sistemak bazterrean uzten dituenak.

Ez dugu honelako zenbakiei buruzko zerrenda gehiago egin nahi:

- Mundu zabalean, 15 urteko edo hortik gorako 736 milioi emakume izan dira bikotekidearen indarkeria fisiko edo sexualeko biktimak (jazarpen sexuala kontuan hartu gabe), bikotetik kanpoko indarkeria sexualeko biktimak edo bi indarkeria horietako biktimak.
- Europar Batasuneko 15 urtetik gorako 10 emakumetatik batek ziberjazarpena pairatu du.
- Planetako 5 eskualdetan elkarrizketatutako emakume parlamentarioen %82k adierazi zuten, nolabaiteko indarkeria psikologikoa jasan dute (irudi sexual laidogarriak, mehatxuak, laneko jazarpen sexuala...).
- Neskatilen %28 ez da inoiz seguru sentitzen ikastetxera bidean. Genero-indarkeria oztopoa da eskolaratze unibertsalerako nahiz neskatilen hezkuntza-eskubiderako.

Gaur egun, inoiz baino gehiago, hezkuntzak berak **bakerako hezi** behar gaitu, eta **bortitza ez den komunikaziorako** metodologiak zein **zainketen etika** berreskuratu eta balioa eman behar die, gero eta militarizatuago dagoen eta gero eta gerra-eraso gehiago dituen testuingurua alde batera utzita, biziak suntsitzen dituztelako eta emakumeek arrisku zein zaugarritasun handiagoa dutelako, indarkeria psikologiko nahiz sexuala jasateko, esplotazio sexualerako salerosketaren eta trafikoaren helburu izateko eta senideen zainketagatiko *gehiegizko lana* euren gain hartzeko.

Hezkuntza hori emozionala eta afektibo sexuala izan behar da, gorrotoz betetako diskurtso ukatzaileen eta doktrinamenduaren aurrean zenbait balio berreskuratu daitezten; esate baterako, enpatia, samurtasuna, maitasuna, elkartasuna, guztiona dena eta zainketa kolektiboak.

Azken urtearen berrikuspena eginez gero, aitortu egiten dugu aurrerapauso handiak eman direla giza eskubideen defentsan eta genero-indarkeriaren gaitzespen sozialean, baina gehiago egin behar dugu.

Mugimendu feministari esker ikasi dugu abusutzat hartzen zena eraso dela benetan eta adostasuna funtsezkoa dela bi pertsonak berdintasun-mailan daukaten harremanean.

Eskubideen zein lurraldearen defendatzaileei eta ekofeminismoari esker ikasi dugu ezin garela indarkeria matxisten aurka borrokatu gaur egungo garapeneredua kolokan jarri gabe, lurralde osoak guztion ondasun barik (ura, haziak, natura, esaterako) bizitzera behartzen dituela eta, bertan, emakumeak kaltetuenak direla kontuan hartuta.

Arrazakeriaren aurkako mugimenduei esker ikasi dugu ezin garela indarkeria matxisten aurka borrokatu emakume migratzaileak eta arrazializatuak kontuan hartu gabe, jende zuriak dituen pribilegioak berrikusi gabe eta zuriak ez diren gorputzak kaltetu, baztertu, ustiatu eta kanporatzen dituzten gizarte ezin arrazistagoetan bizi garela aitortu gabe.

Etorkizun distopikoen aurrean, ikasi egin dugu nolako boterea daukaten historiek eta narrazioek, nola berreskuratu ditzakegun geure familien, auzoen eta lurraldeen egunerokotasunetik eta zergatik asmatu behar ditugun beste era batera bizitzerik badagoela pentsatzeko.

Indarkeria matxisten aurrean, berdintasunean heztea zeinen garrantzitsua den nabarmendu nahi dugu, eta, bide horretan, InteRedekin bat egiteko eskatu nahi dizuegu. Horretarako, apurka-apurka sortu ditugun hezkuntza-baliabideak jarri nahi ditugu zuon esku:

[Hausnarketarako proposamenak - 2023ko A25aren inguruko ekintza: Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna | InteRed](#)
[EZ UKATU, negazionismoen aurkako erakusketa elkarreragilea | InteRed GGKE](#)

[Berdintasuna Nagusi - Indarkeria matxistak hezkidetzaren bidez prebenitzea \(intered.org\)](http://intered.org)

Horrez gain, Euskal Herriko InteReden, 2023ko azaroaren 30eko Greba Orokor Feministarako deialdiarekin bat egiten dugu, pribatizazioaren ondorioz zainketen sisteman sortutako krisia salatu eta zainketen sistema publiko komunitario feminista aldarrikatu behar delako. Euskal gizarte osoari eskatu nahi diogu Greba Orokor Feministari babesa emateko, zainketek eragina dutelako gudan eta guzti-guztion ardura direlako. **Bizitza guztiak jarri behar ditugu erdigunean.**